

HERRITARREN FOROAREN BIODIBERTSITATEA, PAISAIA ETA INGURUMEN BEKTOREEN 1. LAN SAIOA

Bilera antolatu duen organoa:	Hondarribiko udala
Deialdia egin duena:	Hondarribiko Udaleko Ingurumena eta Agenda 21 departamentua
Data, tokia eta ordua:	2008ko irailak 18 Hondarribiko Udaleko Pleno Aretoa 19:00ak
Harremanetarako pertsona:	Idazkaritza Teknikoa (Izadi 21): <ul style="list-style-type: none">- Aitor Gonzalez- Edurne Simón- Naroa Susperregi
Telefonoa:	943 492 215 / 628 532 303 / 628 532 248
Helbide elektronikoa	info@izadi21.net

Gai-zerrenda:	1- Etorritakoei ongi etorria 2- Udal mahai teknikoek prestatutako Ekintza Planaren Zirriborroaren eztabaida eta osaketa.
----------------------	---

PARTE HARTU DUTE:

Banakako herritarrak:

- Anaïs Mitxelena Larrañaga
- Asun Yarzabal

Elkarteak, enpresak, eskola zentroak:

- Aranzadi zientzi elkarte (Jon Garin, Iñaki Sanz)
- ACUBI –*Asociación de Consumidores y Usuarios del Bidasoa*- (Belén Martínez)
- E.I.B.E –Euskal Izurde eta Balezaleen Elkarte- (Enara Marcos)

Erakundeak:

- Hondarribiako udala (Ion Elizalde-Ingurumena eta Agenda 21 Zinegotzia-, Mikel Mariskal-EAeko Zinegotzia-, Miren Legorburu-EAeko Zinegotzia-).

1. Etorritakoei ongi etorria:

Agenda 21en Herritarren Foroaren lan mahaiari hasiera emateko, Ion Elizalde (Hondarribiko udaleko Alkateordea eta Ingurumena eta Agenda 21en zinegotzia) etorritakoei hurbildu izana eskertu zien. Ondoren, eguneko gai zerrenda aurkeztu zuen eta bertaratutako pertsona bakoitzak bere burua aurkeztu zuen.

Ondoren, Agenda 21en prozesuaren aholkularitza zerbitzua daraman Izadi 21 enpresako teknikariei eman zien hitza eta 6. lerro estrategikotik -"Udalerriko natura ingurunea babestea eta bere baloreak ezagutzera ematea (bioaniztasuna eta paisaiaren babesa)"- hasiaz, programaz programa Ekintza Planaren Zirriborroa lantzen hasi ziren. Honen ondoren, 7. lerro estrategikoa landu zen (*Hiri ingurumenaren kalitatea handitu eta natur baliabideen kudeaketa iraunkorra sustatzea*).

2. Udal mahai teknikoek prestatutako Ekintza Planaren zirriborroaren eztabaida eta osaketa:

LE6. Udalerriko natura ingurunea babestea eta bere baloreak ezagutzera ematea (bioaniztasuna eta paisaiaren babesa):

P6.1 Dagokion antolamendu, kudeaketa eta kontrol tresnen bidez Hondarribiko lurretan kokatutako natur guneen babesa bermatzeko programa; programa honetako lehen ekintzari buruz -E6.1.1 Jaizkibelgo BGLaren kudeaketa egokia gauzatze aldera, udalak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin jarduerak koordinatu eta erakundeen arteko elkarlana aurrera eramatea (Jaizkibelgo kudeaketa planaren zirriborroaren berrikuspena, interes komunitarioko eremuen babesa, e.a.) -, Enara Marcosek Jaizkibelgo Batasunaren Garrantzizko Lekua (BGL) zein prozesutan aurkitzen den galdetu du. Honen inguruan, Diputazioa zenbait ekintza aurrera eramanez jarduten ari dela aipatu dute Aranzadikoek (adibidez, espezie arrotz inbaditzaileen aurkako borrokan jardunean). Honen ondorioz, EIBEk, Aranzadik eta baita Asun Yarzabalek ere, Diputazioaren eskumena izan arren Jaizkibelgo kudeaketa, Udalak bere aldetik ere bultzada eman diezaiokeela. Beraz, E6.1.1. ekintzan, Udalak Jaizkibelgo kudeaketa plana sustatzea eta bultzada ematea gehitzea proposatu zen. Honetaz guztiaz gain, Miren Legorburuk, Udaletik Jaizkibelgo kudeaketa plana onartzeko prozesuari Diputazioan bultzada ematea eskatu zuen.

Programa honen bigarren ekintzaren inguruan (E6.1.2 Txabolismoa eta legez kanpoko baratzeak ekiditeko asmoz, udaletxetik Hondarribian kokatuta dauden Txingudiko paduretan kokatutako eremuen antolaketa eta kontrol egokia bermatzeko beharrezko jarduerak aurrera eramanez) Miren Legorburuk, Txabolismoa ekiditea beharrezkoa dela iruditzen bazitzaion ere, baratzak, ingurunea txukun mantentzeko tresna izan litezkeela proposatu zuen. Horregatik, bertako baratzak babestu eta baloratu beharko liritekeela esan zuen. Honetaz gain, Aranzadikoek, Jaitzubiako paduretan aurkitzen diren baratzak

pribatuak hala publikoak diren galdetu zuten. Honi, ia denak pribatuak direla erantzun zitzaien.

Gainera, ekintza berri bat proposatu zen programa honetarako; Jaizkibeli buruzko ikerketa eguneratzea eta beharrezko izan daitezkeen ikerketa berriak bultzatzea eta gauzatzea. Beraz, honela bilduko dira ekintza hauek:

- *E 6.1.1 Jaizkibelgo BGLaren kudeaketa egokia gauzatze aldera, udalak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin jarduerak koordinatu eta erakundeen arteko elkarlana aurrera eramatea (Jaizkibelgo kudeaketa planaren zirriborroaren berrikuspena, interes komunitarioko eremuen babes, e.a.) eta Jaizkibelgo kudeaketa plana bultzatu Udaletik.*
- *E 6.1.2 Txabolismoa eta legez kanpoko baratzak ekiditeko asmoz, udaletxetik Hondarribian kokatuta dauden Txingudiko paduretan kokatutako eremuen antolaketa eta kontrol egokia bermatzeko beharrezko jarduerak aurrera eraman eta bertan dauden baratzak babestu eta baloratu ingurunea txukun eta antolatuta mantentzeko.*
- *A 6.1.3 Lur eremuak garbi mantentze aldera, landazabalean dauden baratzak babestu eta balioestea*
- *A 6.1.4 Jaizkibeli lotutako natur baloreak ezagutu eta egunean jartzera bideratutako ikerketa eta azterlanak aurrera eraman*

P 6.2 Denboran zehar kaltetuta suertatu den natur ondarea berreskuratzeko programa; programa honi buruzko lehen ekintzari dagokionez (E 6.2.1 Udalaren ekimenez Hondarribian kokatutako Txingudiko padurak babestera bideratutako jardueren zabalkuntza sustatu, babestutako eremuen lehengoratzea lehenetsiz) Aranzadikoek, berreskuratze prozesuetan, habitat eta espezie ezberdinak kontutan izatea, beti ere bertako dibertsitatea bultzatzeko asmotan, proposatu zuten. Beraz, eduki hau erantsi beharko zaio E 6.2.1 ekintzari. E 6.2.3 Jaitzubiako padura erditik zeharkatzen duen errepidea desagertzeko pausoak aurrera eramatea bultzatu; ekintzaren inguruan zalantzak sortu ziren, beraz, eta ekintza hau proposatu zuena Aitor Lekuona izan zenez, berarekin zehaztekotan geratu ginen. Hauetaz gain, beste ekintza berri bat proposatu zen; Jaitzubiako padurak ezagutzera ematea, hain zuzen ere. Honela jasoko genituzke ekintza hauek:

- *E 6.2.1 Udalaren ekimenez Hondarribian kokatutako Txingudiko padurak babestera bideratutako jardueren zabalkuntza sustatu, babestutako eremuen lehengoratzea lehenetsiz, beti ere, habitat eta espezie ezberdinak kontutan izanik, bertako dibertsitatea bultzatzeko.*
- *E 6.2.4 Jaitzubiako padurak ezagutzera eraman.*

P 6.3 Udalerriko natur ondareari buruzko ikerketak gauzatzeko eta natur ondarea osatzen duten balore eta osagaien gaineko errespetua sustatzeko programa; programa honen zirriborroaren lehen ekintza (E 6.3.1 Udalerriko zuhaiztien babes sustatu honako jardueren bidez: Udalerriko zuhaiztien katalogoa egin; Hondarribiko zuhaiztien katalogoan sartzen diren babestutako zuhaitzak Hirigintza Planeamenduko Plan Orokorrean barneratu) osatzea eta zehaztea proposatu zen, hau da, udalerrian bertan aurkitzen diren zuhaiztiak

sustatzea betako basoen ezaugarriak kontutan izanik. Bestetik, E6.3.2 Ekintza "Hondarribiko bioaniztasunari eta paisaiei buruzko ingurumen hezkuntza eta sentsibilizazio ekimenak aurrera eraman (Eskolako Agenda 21 programaren baitan eskolekin batera antola daitezkeen ekimenak esate baterako)" ere osatzea proposatu zen, zenbait adibide txertatuaz; "Azterkosta", "Ibaialde",... Azkenik, E6.3.3 "Hondarribian kokatuko ekosistema ezberdinei buruzko diagnostia gauzatu, horien gaineko analisia eta ekosistemen hobekuntzara zuzendutako jarduerak aurrera eramanez" ekintza ere osatzea proposatu zuten, hau da, ekosistemez gain paisaia ezberdinei buruzko diagnostikoak ere gauzatu beharko lirakeela. Gainera, ekintza berria proposatu da, landare nahiz animali inbaditzaileei buruzko azterketa egitea eta beharrezko jarduerak aurrera eramatea hauekin bukatzeko asmotan aipatu zen. Eta azkenik, beste ekintza berri baten ekarpena egin zen, betelanak egiterako garaian Udalak kontrol zorrotzagoa gauzatzea, batez ere babestutako dauden espazioetan. Beraz, osatu beharreko ekintzak eta proposatutako ekintza berriak, honela bilduko genituzke:

- *E 6.3.1 Udalerriko zuhaitzien babesaren sustatu, bertako basoen ezaugarriak kontutan izanik, honako jardueren bidez: Udalerriko zuhaitzien katalogoa egin; eta, Hondarribiko zuhaitzien katalogoan sartzen diren babestutako zuhaitzak Hirigintza Planeamenduko Plan Orokorrean barneratu.*
- *E 6.3.3 Hondarribian kokatutako ekosistema eta paisaia ezberdinei buruzko diagnostia gauzatu, horien gaineko analisia eta ekosistemen hobekuntzara zuzendutako jarduerak aurrera eramanez.*
- *E 6.3.4 Hondarribian aurki daitezkeen espezie exotiko inbaditzaileen azterketa eta hauen erradikazioa bultzatzea.*
- *E 6.3.5 Babestutako natur guneetan egiten diren betelanen gaineko kontrol zorrotzagoa aurrera eraman*

P 6.4 Nekazaritza, abeltzaintza eta basozaintza iraunkorrak sustatzeko programa; honen inguruan, zenbait ekintza berri proposatu ziren. Batetik, bertako nekazariari, nekazaritza ekologikoari buruzko prestakuntza ikastaroak ematea proposatu zen. Bestetik, nekazariak erabiltzen dituzten ongarri kimikoen azterketa egitea eta hauek inguruko erreketan eragin ditzaketen kalteak aztertzea proposatu zen. Gainera, basozaintza iraunkorraren aldeko politika definitzea, martxan jartzea eta bultzatzea proposatu zen. Eta azken ekarpena, abeltzaintza estentsiboak Jaizkibelen izan dezakeen eragina aztertzea eta sustapen iraunkorra bultzatzea izan zen. Beraz, aipatutako ekintza hauek honela bilduko genituzke:

- *E 6.4.3 Bertako nekazariari, nekazaritza ekologikoari buruzko prestakuntza ikastaroak eskaintzea.*
- *E 6.4.4 Nekazaritzan erabiltzen diren ongarri kimikoen eta hauek erreketan eragin ditzaketen kalteak aztertzea.*
- *E 6.4.5 Basozaintza iraunkorraren aldeko politika definitzea, martxan jartzea eta bultzatzea.*
- *E 6.4.6 Abeltzaintza estentsiboak Jaizkibelen duen eragina aztertu eta sustapen iraunkorra bultzatzea.*

P 6.5 Udalerriko ur baliabideei lotutako ekosistemak babesteko eta berreskuratzeko programa; programa honetako zirriborroan bildutako ekintza bakarrari buruz (E 6.5.1 Udalerrian kokatuta dauden erreken inguruko udal ikerketa bat gauzatu eta erreka horien lehengoratzeta eta balioa handitzeko jarduera plan bat aurrera eraman), bertako errekek berreskuratzea garrantzitsua dela aipatu zuten Aranzadikoei, batez ere, mehatxatuta eta iraungitze prozesuan dauden zenbait espezie aurkitzen direlako eta zenbait landare espezie exotiko inbaditzaile aurkitzen direlako hauen inguruneetan (landare inbaditzaileek ere arriskuan jartzen dute desagertzeko zorian dauden espezien biziraupena). Honetaz gain, ekintza berri bat proposatu zen, udalerriko akuiferoen ikerketa egitea eta hauen babeserako plana bultzatzea hain zuzen ere. Beraz, ekintza berri hau, honela jasoko da:

- *E 6.5.2 Udalerriko akuiferoei buruzko ikerketa gauzatzea eta hauen babesa bultzatzea.*

P 6.6 Udalerriko ondare historiko, etnografiko eta arkitektonikoaren berreskurapena, babesa eta ezagutza sustatzeko programa; P6.6 programa ezabatzea proposatu zen, eta bere baitango ekintza - E6.6.1 Historian zehar Hondarribiko biztanleek bereganatutako ezagutza eta ohiturak ezagutzera emateko asmoz, udaletxetik belaunaldi arteko jarduerak egitea bultzatu (udalerriko bizimoduak, jokoak, festak, ogibideak, musika, usadioak, e.a.) –, P2.8 "Udalerriko kultura ekipamenduen eskaintza hobetu eta kultura jardueren etengabeko hobekuntza sustatzeko programa"ren barne sartzea E2.8.6 ekintza moduan.

LE7. Hiri ingurumenaren kalitatea handitu eta natur baliabideen kudeaketa iraunkorra sustatzea:

P 7.1 Udalerrian uraren zikloaren kudeaketa etengabe hobetzeko programa; programa honen inguruan, E7.1.1 Lehorre garaian, natur baliabide honen hornikuntza bermatzeko asmoz, Jaizkibelgo ur hartuneen proiektua gauzatu; EAE eta baita Aranzadikoei ere, ekintza honen aurka agertu ziren, akuiferoen ustiaketa larrialdietan soilik erabili beharko lirakeela azalduaz. Horregatik, akuiferoen ustiaketaren aurka, uraren kontsumoaren murrizketa bultzatzeko eta hantzeko planak garatu eta bultzatzea proposatu zuten. Hau guztia dela eta, batetik, akuiferoen eta iturrien (eta baita erreken) inbentarioa egitea proposatu zen ekintza moduan. Bestetik, E7.1.3 Udal instalazioa eta zerbitzuetan uraren kontsumoari buruzko diagnostiko bat egia; ekintza osatu eta honen jarraian aurrezpen plan bat egitea proposatu zen. Gainera, E7.1.4 Urari buruzko ingurumen hezkuntzako ekintzak zein sentsibilizazio kanpainak antolatzeke garaian, udala eta Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitatearen arteko koordinazioa ahalbidetu; ekintza osatzea aipatu zen zenbait jarduera zehatzekin. Hau da, adibidez, ur emariaren erreduktoreak herritarren artean banatzea, edo, ur isuriak kontrolatzen jakiteko zerbitzuak herritarrentzat ipintzea,... Eta azkenik, ekintza berri bat proposatu zuten EAE-koek, hau da, araztegiaren prozesuaren azken tratamendua gauzatzea eta bertatik jasotako lohiak edo hondakinak, ongarri moduan erabiltzea. Beraz, honela jasoko genituzke ekintza berri hauek:

- *E7.1.3 Udal instalazioa eta zerbitzuetan uraren kontsumoari buruzko diagnostikoa egitea eta aurrezpen plan bat burutzea.*
- *E7.1.4 Urari buruzko ingurumen hezkuntzako ekintzak zein sentsibilizazio kanpainak antolatzeko garaian, udala eta Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitatearen arteko koordinazioa ahalbidetu. Adibidez, ur emariaren erreduktoreak banatu, ur isuriak kontrolatzen jakitea ahalbidetu herritarrei,...*
- *E7.1.9 Akuiferoen eta iturrien, baita errekatxoek inbentarioa ere egitea.*
- *E7.1.10 Araztegiko prozesuaren azken tratamendua jasan ondoren jasotzen diren hondakin edo lohiak ongarri moduan erabilgarriak izatea ahalbidetzea.*

P 7.2 Lurzoruaren kalitatearen ikerketa bultzatu eta baliabide horien hobekuntza sustatzeko programa; Lurra kutsatu dezaketen jardueren jarraipen bat egiteaz hitz egin zen, horretarako, egun, kutsatzaile potentzialak diren enpresetako lurretan (Bidaurreta txatarregia, gasolindegia, Jaitzubiako meategia,...), bertako lurzoruaren kalitatea neurtzeko beharra azpimarratuz. Honela, E 7.2.1 Ekintza "Hondarribiko lurzoruaren kalitatearen inguruko ikerketak aurrera eraman" egindako ekarpen horiekin modu honetan geratuko litzateke: E 7.2.1 Ekintza "Hondarribiko lurzoruaren kalitatearen inguruko ikerketak aurrera eraman, batez ere kutsatzaile potentzialak diren jarduerak ematen diren lurri erreparatuz".

Era berean, kutsadura kontrolatzeko neurri eraginkor gisa lurrak poluitzen dituzten enpresei zigor fiskalak ezartzea ekintza berri bezala proposatu zen. E 7.2.3 Ekintza "Kutsadura kontrolatzeko neurri eraginkor gisa lurrak poluitzen dituzten enpresei zigor fiskalak ezartzea aztertu". Era berean, lur poluituen kontrol zorrotzagoa eramateko, lizentzien kontrol jarrai bat egitea ere proposatu zen, azken hau 7.2.4 ekintza bezala jasoko dena.

P 7.3 Energiaren aurrezpena, erabilera eraginkorra eta energia berriztagarrien ekoizpena eta kontsumoa handitzeko programa:

Programa honetako E 7.3.5 ("Udal instalazioen funtzionamendu egokia kontrolatze aldera, udaletxetik espezializatuta dagoen pertsonalaren kontratazioa aurrera eraman") ekintza zehaztu zuten EAE-koek, hau da, pertsonalaren kontratazioa beharrean pertsona arduraduna izendatu eta beharrezko formazioa jasotzea egokiagoa dela aipatu zuten.

Bestetik E 7.3.6 ekintza ("Instalazio eta ekipamendu publikoetan presentzia detektagailuak ezartzea -eraikin berrietan eta progresiboki eraikin zaharretan ere-)" moldatzea proposatu zen, hau da, presentzia detektagailuak beti sistematik eraginkorrenak izango ez direnez, "argi energia aurrezteko sistematik egokienak ezartzea" moduan jaso beharko litzateke ekintza.

P 7.4 Hiri hondakinen kudeaketaren etengabeko hobekuntza bultzatzeko programa; programa honen inguruan hainbat ekintza berri proposatu ziren. Batetik, Anis Michelenak, herriko zenbait guneeetan (adibidez, alde zaharrean) zabor ontzi gehiago jartzea proposatu zuen, baita txakur kakak biltzeko ontziak ere. Bestetik, EAEkoek, atez-ateko gaikako bilketaren azterketa sakona egin beharko litzatekeela aipatu zuen eta baita, hondakin organikoak kudeatzeko konpostajea martxan jarri ere. Gainera, zerbitzuetan jarduten dutenentzat, jatetxe, taberna edo elkarte gastronomikoentzat ere gaikako bilketa bultzatzeko, beira edukiontziez gain, gainontzeko gaikako edukiontziak jartzea proposatu zen. Bestetik, EAEkoek, olioaren bilketaren maiztasuna handitu eta auzoetara ere hedatzea proposatu zuten. EIBEkoak, udal aldizkarian ere hondakinen gaikako bilketari buruzko informazioa agertzea komenigarria dela aipatu zuen (non bota, telefono zenbakiak,...). Eta azkenik, dendariekin plastikozko poltsen erabilpenaren murrizketa kanpaina bat egitea proposatu zen.

- *E 7.4.4 Herriko zabor ontzien beharrak aztertu eta beharrezko den tokietan ezarri.*
- *E 7.4.5 Herriko zenbait guneeetan txakurren kakak jasotzeko ontziak jarri.*
- *E 7.4.6 Atez-ateko gaikako bilketaren azterketa sakona egin.*
- *E 7.4.7 Hondakin organikoak kudeatzeko konpostajei planta martxan jarri.*
- *E 7.4.8 Zerbitzuetan, jatetxe, taberna edo elkarte gastronomikoetan gaikako bilketa sustatu eta hauen inguruetan beharrezko gaikako zabor ontziak jarri.*
- *E 7.4.9 Olioaren bilketaren maiztasuna handitu eta auzoetara hedatu.*
- *E 7.4.10 Udal aldizkarian, gaikako bilketari buruzko informazioa txertatu.*
- *E 7.4.11 Dendariekin plastikozko poltsen erabilpenaren murrizketa kanpaina antolatu.*

P 7.5 Eraikuntza eta eraispn hondakinen kudeaketa hobetzeko programa; honetan ekintza berri bat proposatu zen, hau da, lur ez hiritargarrietan ematen diren lizentzietan kontrola areagotzean eta batez ere, hondakinen gaien inguruko betebeharrekoak ziurtasunez betearaztea (adibidez, hondakin inerte eta inertizatuei buruzko Eusko Jaurlaritzaren Dekretuan edo eraikin eta eraispn Errege Dekretuan jasotzen direnak).

P 7.6 Udalerrian sortzen diren hondakin arriskutsuen inguruko ezagutza bultzatu eta hondakin horien kudeaketa egokia gauzatzeko programa; programa honetan zenbait ekintza berri proposatu ziren; batetik, herritarrei zuzendutako hondakin arriskutsuen kudeaketa eta bereizketa ahalbidetzeko prestakuntza kanpaina egitea. Bestetik, arrantzaleei zuzendutako hondakinei buruzko sentsibilizazio kanpainak egitea proposatu zen. Beraz, honela jasoko genituzke ekintza hauek:

- *E7.6.2 Herritarrei zuzendutako hondakin arriskutsuen kudeaketari buruzko prestakuntza kanpainak gauzatea.*

- *E7.6.3 Arrantzaleei zuzendutako hondakinei buruzko sentsibilizazio kanpainak gauzatzea.*

P 7.7 Airearen kalitate egokia bermatu asmoz, kutsadura atmosferikoaren gaineko ezagutza eta udal kontrola hobetzeko programa; ekintza berri bat proposatu zuten EAE-koek, hau da, Hondarribian ere airearen kalitatea neurtzeko sistema ezartzea eta ezinezkoa izango balitz, uda inguruan, ibiltariak diren neurgailuekin airearen kalitatea neurtzea. Bera, ondorengo modura jasoko da ekintza:

- *E 7.7.3 Hondarribiko airearen kalitatea neurtzeko sistemak ezartzea.*

P 7.8 Udalerriko kutsadura akustikoa ezagutzeko, udal kontrola hobetzeko eta udalerriko kalitate akustikoa hobetzeko programa; honi buruz bi ekintza berri proposatu ziren, batetik, udalerriko zarataren mapa gauzatzea. Eta bestetik, aireportuaren zaratari buruzko ikerketa zehatza gauzatzea. Beraz, honela bilduko dira ekintza hauek:

- *E 7.8.2 Udalerriko zarataren mapa gauzatzea.*
- *E 7.8.3 Aireportuaren zaratari buruzko ikerketa gauzatzea.*

P 7.9 Hiri ingurunearen kalitatea hobetzeko programa; hasteko, programa honen izenburua moldatzea proposatu zen, "hiri ingurunea" beharrean "udalerriko kalitatea hobetzeko programa" izatea hain zuzen ere. Gainera, programa honen inguruan sor daitezkeen gai ezberdinei buruzko mahai inguruak egitea aipatu zen. Eta azkenik, Enara Marcosek, kai ingurunean, urte osoko hondakin bilketa eraginkorra egotea eta baita Jaizkibelgo kostaldean egiten diren garbiketen hedapena zabaltzea eta maiztasuna handiagotzea eskatu zuen.

Bilera 21:30ean amaitu zen.

Irailaren 18an egindako Herritarren Foroaren bileran egindako proposamenak jaso eta Ekintza Planeko 6. eta 7. lerroak osatu ditugu. Kolore urdinez agertzen dira egindako ekarpenen arabera aldaketarik jaso duten ekintzak, berridatziak izan direnak edo proposatutako ekintza berriak. Bi atalok hurrengo orrietan aurkituko dituzue:

LE 6		UDALERRIKO NATURA INGURUNEA BABESTEVA ETA BERE BALOREAK EZAGUTZERA EMATEA (BIOANIZTASUNA ETA PASAIAREN BABESA)	
PROGRAMA ZENBAKIA	PROGRAMAREN IZENBURUA		
P 6.1	Dagokion antolamendu, kudeaketa eta kontrol tresnen bidez Hondarribiko lurretan kokatutako natur guneen babesa bermatzeko programa		
	EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA	
	E 6.1.1	Jaizkibelgo BGLaren kudeaketa egokia gauzatze aldera, udalak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin jarduerak koordinatu eta erakundeen arteko elkarlana aurrera eramatea (Jaizkibelgo kudeaketa planaren zirriborroaren berrikuspena, interes komunitarioko eremuen babesa, e.a.) eta Jaizkibelgo kudeaketa plana bultzatu Udaletik	
	E 6.1.2	Txabolismoa eta legez kanpoko baratzeak ekiditeko asmoz, udaletxetik Hondarribian kokatuta dauden Txingudiko paduretan kokatutako eremuen antolaketa eta kontrol egokia bermatzeko beharrezko jarduerak aurrera eraman eta bertan dauden baratzak babestu eta baloratu ingurunea txukun eta antolatuta mantentzeko	
	E 6.1.3	Lur eremuak garbi mantentze aldera, landazabalean dauden baratzak babestu eta balioestea	
	E 6.1.4	Jaizkibeli lotutako natur baloreak ezagutu eta egunean jartzera bideratutako ikerketa eta azterlanak aurrera eraman	
P 6.2	Denboran zehar kaltetuta suertatu den natur ondarea berreskuratzeko programa		
	EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA	
	E 6.2.1	Udalaren ekimenez Hondarribian kokatutako Txingudiko padurak babestera bideratutako jardueren zabalkuntza sustatu, babestutako eremuen lehengoratzeari lehenetsiz, beti ere, habitat eta espezie ezberdinak kontutan izanik, bertako dibertsitatea bultzatzeko	
	E 6.2.2	Udalaren ekimenez Jaizkibel mendia eta Hondarribian kokatutako Txingudiko paduren eremuak lotzeko balio duen korridore ekologikoa sortu edo berreskuratzeko aukerak ikertzea (ekintza hau 6.4 programarekin ere lotura zuzena du; "Udalerriko natur inguruneari buruzko ikerketak bultzatzeko programa")	
	E 6.2.3	Berreskuratu diren paduren erditik pasatzen den bidearen deuseztapena	
	E 6.2.4	Jaizubiako padurak ezagutzera eraman.	

	P 6.3	Udalerriko natur ondareari buruzko ikerketak gauzatzeko eta natur ondarea osatzen duten balore eta osagaien gaineko errespetua sustatzeko programa	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 6.3.1	<i>Udalerriko zuhaitzien babesu sustatu, bertako basoen ezaugarriak kontutan izanik, honako jardueren bidez:</i> <ul style="list-style-type: none"> ➤ <i>Udalerriko zuhaitzien katalogoa egin</i> ➤ <i>Hondarribiko zuhaitzien katalogoan sartzen diren babestutako zuhaitzak Hirigintza Planeamenduko Plan Orokorrean barneratu</i>
		E 6.3.2	Hondarribiko bioaniztasunari eta paisaiei buruzko ingurumen hezkuntza eta sentsibilizazio ekimenak aurrera eramanez (Eskolako Agenda 21 programaren baitan eskolekin batera antola daitezkeen ekimenak esate baterako)
		E 6.3.3	Hondarribian kokatutako ekosistema eta paisaia ezberdinei buruzko diagnostika gauzatu, horien gaineko analisisa eta ekosistemen hobekuntzara zuzendutako jarduerak aurrera eramanez.
		E 6.3.4	Hondarribian aurki daitezkeen espezie exotiko inbaditzaileen azterketa eta hauen erradikazioa bultzatzea
		E 6.3.5	Babestutako natur guneetan egiten diren betelaneen gaineko kontrol zorrotzagoa aurrera eramanez
		E 6.3.6	Txingudiko paduretaren egoten diren hegaztiengan aireportuak izan dezakeen eragina ezagutzeko ikerketa gauzatu
	P 6.4	Udalerriko natur inguruneari buruzko ikerketak bultzatzeko eta errespetua sustatzeko programa	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 6.4.1	Hondarribian nekazaritza ekologikoko urteko feriak antolatzea aukera aztertu
		E 6.4.2	Hondarribian dauden nekazaritza ekologikoko ekoizleen eta sortzen dituzten produktuen inguruko aldiroko informazioa zabaldu herritarren sektore ezberdinen artean
		E 6.4.3	Bertako nekazariari, nekazaritza ekologikoari buruzko prestakuntza ikastaroak eskaintzea
E 6.4.4		Nekazaritzan erabiltzen diren ongardi kimikoen eta hauek erretetan eragin ditzaketen kalteak aztertzea	
E 6.4.5	Basozaintza iraunkorraren aldeko politika definitzea, martxan jartzea eta bultzatzea		

		E 6.4.6	Abeltzaintza estentsiboak Jaizkibelen duen eragina aztertu eta sustapen iraunkorra bultzatzea
		E 6.4.6	Hondarribiko Udaletik aireportuak Txingudiko paduretan dauden hegaztiengan izan ditzakeen ondorioei buruzko ikerketa bat egin dadila bultzatu
	P 6.5	Udalerriko ur baliabideei lotutako ekosistemak babesteko eta berreskuratzeko programa	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 6.5.1	Udalerrian kokatuta dauden erreken inguruko udal ikerketa bat gauzatu eta erreka horien lehengoratzeko eta balioa handitzeko jardura plan bat aurrera eraman
		E 6.5.2	Udalerriko akuiferoei buruzko ikerketa gauzatzea eta hauen babes bultzatzea
LE 7	HIRI INGURUMENAREN KALITATEA HANDITU ETA NATUR BALIABIDEEN KUDEAKETA IRAUNKORRA SUSTATZEA		
	PROGRAMA ZENBAKIA	PROGRAMAREN IZENBURUA	
	P 7.1	Udalerrian uraren zikloaren kudeaketa etengabe hobetzeko programa	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 7.1.1	Lehorte garaian, natur baliabide honen hornikuntza bermatzeko asmoz, Jaizkibelgo ur hartuneen proiektua gauzatu
		E 7.1.2	Hornikuntza sarea kontrolatze aldera, ur hornidura sare orokorraren handitze eta hobekuntza proiektuarekin aurrera jarraitu, horretarako honako jarduerak aurrera eramanez: <ul style="list-style-type: none"> - Edateko ura tratatzeko plantara lotura duen biltegi berri bat eraikitzea Guadalupen, zeinaren bidez Hondarribiko auzo altuetako etxebizitzak uraren hornidura sare orokorrari lotutako geratu diren - Hornidura sareko ur isuriak antzemateko eta presioa zein ur emaria neurtzeko puntuak ezartzeko asmoz hornidura sarearen sektorizazioa aurrera eramatea
		E 7.1.3	Udal instalazioa eta zerbitzuetan uraren kontsumoari buruzko diagnostikoa egitea eta aurrezpen plan bat burutzea
		E 7.1.4	Urari buruzko ingurumen hezkuntzako ekintzak zein sentsibilizazio kanpainak antolatze garaian, udala eta Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitatearen arteko koordinazioa ahalbidetu. Adibidez, ur emariaren erreduktoreak banatu, ur isuriak kontrolatzen jakitea

LE 7	P 7.2		ahalbidetu herritarrei,...	
		E 7.1.5	Txingudiko Zerbitzuen Mankomunitateak eskaintzen duen bisita gidatuen eskaintzari jarraipena eman	
		E 7.1.6	Udalak Mankomunitateari laguntza eskaintzea Ingurumenaren Mundu Egunari lotutako sentsibilizazio ekintza sorta antolatzeko orduan	
		E 7.1.7	Uraren saneamendu sarearen sektorizazio proiektuarekin jarraitu	
		E 7.1.8	Hondarribiko mendebaldeko eremuko drainatzeen proiektua aurrera eramatea	
		E 7.1.9	Akuiferoen eta iturrien, baita errekatxoek inbentarioa ere egitea	
		Lurzoruaren kalitatearen ikerketa bultzatu eta baliabide honen hobekuntza sustatzeko programa		
		EKINTZA ZENBAKIA		EKINTZAREN IZENBURUA
		E 7.2.1	Hondarribiko lurzoruaren kalitatearen inguruko ikerketak aurrera eraman, batez ere kutsatzaile potentzialak diren jarduerak ematen diren lurri erreparatuz	
		E 7.2.2	Kutsatuta egon litezkeen lurzoruak berreskuratu	
	E 7.2.3	Kutsadura kontrolatzeko neurri eraginkor gisa lurrak poluitzen dituzten enpresei zigor fiskalak ezartzea aztertu		
	E 7.2.4	Potentzialki poluituak egon daitezkeen lurzoruaren gaineko udal kontrol eraginkorragoa aurrera eraman lizentziak izapidetzeko unean batez ere		
	E 7.2.5	Hondarribiko nekazal lurretan erabiltzen den ongarriei buruzko ikerketa bat aurrera eraman, lurzoruaren kalitatean izan dezakeen eraginaren ikuspuntutik		
	P 7.3	Energiaren aurrezpena, erabilera eraginkorra eta energia berriztagarrien ekoizpena eta kontsumoa handitzeko programa		
		EKINTZA ZENBAKIA		EKINTZAREN IZENBURUA
		E 7.3.1	Energia berriztagarriak dituzten eraikinen inguruko udal inbentario bat egin	
		E 7.3.2	Udal eraikin eta instalazio publikoetan progresiboki energia berriztagarriak jartzea	
		E 7.3.3	Herritarren artean energiaren aurrezpena sustatzera bideratutako sentikortze kanpaina berritzaileak eta jarraituak antolatu	
		E 7.3.4	Udal ordezkari politikoek zein teknikariek osatutako udal batzorde berezi bat osatzea udaletxe barruan, zeinak natur baliabideen	

LE 7			aurrezpenarekin harreman zuzena izango duen
		E 7.3.5	Udal instalazioen funtzionamendu egokia kontrolatze aldera, udaletxetik espezializatuta dagoen pertsonalaren kontratazioa aurrera eraman edo funtzio hori gauzatzeko udal arduradun bati prestakuntza eman
		E 7.3.6	Instalazio eta ekipamendu publikoetan argi energia aurrezteko sistemarik egokienak ezartzea (eraikin berrietan eta progresiboki eraikin zaharretan ere)
		E 7.3.7	Tentsioaren egonkortzea errazten duten jarduerekin zein argiaren kutsadura desagerrarazten edo leuntzen laguntzen duten neurriekin aurrera jarraitu, eta argiteria publikoan kontsumo baxuko bonbillen instalazioa aurrera eraman. Ekintza hau honako jarduera/eremuetan gauzatzeko litzateke: <ul style="list-style-type: none"> - Alde zaharra - Energiaren aurrezpenerako irizpideak aintzat hartuz, Gibeleta auzoko argiteria hobetzea - Argiteria publikoaren kudeaketa prebentiboaren programarekin jarraitu Argiteria publikoan 150W erabiltzen dituzten bonbillak erabiltzetik 100W darabilten bonbilletara pasa, erosotasun bera eskaintzen dutenak eta gainera eraginkorragoak direnak
	P 7.4	Hiri hondakinen kudeaketaren etengabeko hobekuntza bultzatzeko programa	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 7.4.1	Hiri hondakinen bilketa zerbitzuaren jarraipena egin, aurrez udaletik sor daitezkeen proposamen edo iradokizunak aintzat hartuz
		E 7.4.2	Eskumena duten erakundeen arteko koordinazioa eta elkarlana bultzatu hondakinen prebentzioa, berrerabilpena eta birziklapena sustatzeko antolatzen diren ekimenetan, urtero beharrezkotzat jotzen diren jarduera guztiak aurrera eramanez.
		E 7.4.3	Eskualderako aurreikusitako Garbigune berriak martxan jarri, horietako bat Hondarribian kokatutako egotea bultzatuz
		E 7.4.4	Herriko zabor ontzien beharrak aztertu eta beharrezko den tokietan ezarri
		E 7.4.5	Herriko zenbait gunetan txakurren kakak jasotzeko ontziak jarri
		E 7.4.6	Atez-ateko gaikako bilketaren azterketa sakona egin.
	E 7.4.7	Hondakin organikoak kudeatzeko konpostajea martxan jarri	

LE 7		E 7.4.8	Jatetxe, taberna edo elkarte gastronomikoetan gaikako bilketa sustatu eta hauen inguruetan beharrezko gaikako zabor ontziak jarri.
		E 7.4.9	Olioaren bilketaren maiztasuna handitu eta auzoetara hedatu.
		E 7.4.10	Udal aldizkarian, gaikako bilketari buruzko informazioa txertatu
		E 7.4.11	Dendariekin plastikozko poltsen erabilpenaren murrizketa kanpaina antolatu
		E 7.4.12	Uren araztegitik eratorritako lohiak nekazal lurretan edo lorezaintzan erabiltzeko aukera aztertu porlanen fabrikan erre beharlean, eta bideragarria izango balitz, lohiak aipatu jardueretan berrerabiltzea
		E 7.4.13	Portuko eremuan hondakinen gaikako bilketa hobetzea eta Jaizkibelgo kostako garbiketa lanen maiztasuna handitzea
	P 7.5	Eraikuntza eta eraispen hondakinen kudeaketa hobetzeko programa	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
	P 7.6	E 7.5.1	Udaletxetik nahiz Mankomunitatetik Hondarrabian sortzen diren eraikuntza eta eraispen hondakinen inguruko arazoa ikertu eta ekintza koordinatu
		E 7.5.2	Mankomunitatearen hondakinen ordenantza abiapuntutzat hartuz, hondakin mota hauen inguruko kontrolik gabeko isurketen inguruko zehapen espedienteak irekitzea bultzatu
		E 7.5.3	Lurzoru ez hiritargarrian ematen diren lizentzien inguruko kontrol eraginkorragoa aurrera eraman
		E 7.5.4	Kontrolik gabe eta legez kanpo botatzen diren obra eta eraispen hondakinei buruzko ikerketa bat aurrera eraman
	P 7.6	Udalerrian sortzen diren hondakin arriskutsuen inguruko ezagutza bultzatu eta hondakin horien kudeaketa egokia gauzatzeko programa	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 7.6.1	Industria hondakin arriskutsuak sor ditzaketen enpresen gaineko kontrol jarduerak koordinatu
		E 7.6.2	Herritarrei zuzendutako hondakin arriskutsuen kudeaketari buruzko prestakuntza kanpainak gauzatzea.
		E 7.6.3	Arrantzaleei zuzendutako hondakinei buruzko sentsibilizazio kanpainak gauzatzea
	P 7.7	Airearen kalitate egokia bermatu asmoz, kutsadura atmosferikoaren gaineko ezagutza eta udal kontrola hobetzeko programa	

LE 7	P 7.8	EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 7.7.1	Udaletxetik Irunen kokatuta dagoen airearen kalitatearen kontrolerako kabinan jasotako datuei buruzko informazioa Eusko Jaurlaritzari eskatu (kabina airearen kalitatea neurtzeko sarearen baitan sartuta dago).
		E 7.7.2	Udaletxetik airearen kalitateari buruzko informazioa zabaldu, horretarako komunikazioa ekintza ezberdinak aurrera eramanez
		E 7.7.3	Hondarribiko airearen kalitatea neurtzeko sistemak ezartzea
	P 7.9	Udalerriko kutsadura akustikoa ezagutzeko, udal kontrola hobetzeko eta udalerriko kalitate akustikoa hobetzeko programa	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
		E 7.8.1	Zarataren inguruko legedia betearazteko neurriak aurrera eraman
		E 7.8.2	Udalerriko zarataren mapa gauzatzea
		E 7.8.3	Aireportuaren zaratari buruzko ikerketa gauzatzea
		Hiri ingurunearen kalitatea hobetzeko programa	
		EKINTZA ZENBAKIA	EKINTZAREN IZENBURUA
	E 7.9.1	Uhin elektromagnetikoen neurketei buruzko ikerketa bat egin eta ondoren jasotako datuak herritarrei ezagutzera eraman	
	E 7.9.2	Erradiazio elektromagnetikoei buruzko udal ordenantza idaztea	
	E 7.9.3	Erradiazio/uhin elektromagnetikoei buruzko mapa baten diseinua	
	E 7.9.4	Hondarribiko ingurumenarekin zerikusia duten gaien inguruko komunikazio eta dibulgazio ekintzak aurrera eraman (hitzaldiak, mahai inguruak, e.a.)	